

**Espediente moetea: Administrazio kontratazioa**  
**Kontratua:** Zerbitzu kontratua, prozedura irekiaren bidezkoa.

## **ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZINO-BALDINTZA**

### **ZEHATZEN ORRIAK**

#### **PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO ESLEIPENA**

#### **I.- KONTRATUAREN EDUKINA**

##### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea hau da: Bermeoko Udalak 2010erako Aseguru Pribatuen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatea, jarraian zehazten diran aseguru pribatuen kudeaketarako zein aldian-aldian sortu daitekezenen kudeaketarako:

- Erantzukizun zibileko aseguruia
- Kalte materialen aseguruia
- Ibilgailuen aseguruia
- Defentsa juridikoko aseguruia
- Korporazinoko kideen bizitza aseguruia
- Udal eta Kirol Patronatoko beharginen bizitza aseguruia
- Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguruia
- Itsasontzietako kroskoen aseguruia

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

##### **2. KONTRATUAREN IZAKEREA.**

Kontratu honek izakera pribatua eukiko dau, polizak izenpetzeari jagokonean, Sektore Publikoko Kontratuen 2007/30 Legeak 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

##### **3. KONTRATUGILEAK**



3.1 Kontratugileak izango dira, alde batetik, Bermeoko Udala eta, bestetik, kontratuaren esleipenduna izango dan lehiatzailea.

3.2 Esleipendunak bere jardurearen ohiko xedea beteko dau aseguruaren arloan, indarrean dagoan denpora guztian, baina horrek ez deitso ezelango diru-obligazinarik eragingo Udalari.

3.3. Alde kontratatzaileen arteko kontu guztiak Udalak izapidetuko dauz artekaritza esleipendunaren bidez, eta artekaritza horri egindako jakinarazpenak, kasu guztietan, aseguru-etxeei egindakotzat hartuko dira, Aseguru Pribatuen Antolamentuari eta Ikuskapenari buruzko zementiaren 8ko 30/95 Legean aurreikusitakoa kontuan hartuta betibe.

3.4 Aurrekoa gorabehera, Udala, halan eristen badeutso, zuzen-zuzenean joan ahal izango da aseguru-etxeengana.

#### **4. ZERBITZUAREN ARAU OROKORRAK**

4.1 Kontratua baldintza-agiri honetako baldintzetara zorrotz lotuta gauzatuko da, eta agiria interpretetako administrazioak kontratisteari emoniko jarraibideak hartuko dira kontuan kasu guztietan.

4.2 Kontratistek proposamenean eskainitako ekipamentua eta bitartekoak ezarteko obligazioa eukiko dau kontratua egiteko.

4.3 Kontratua betearazoteko beharginak esleipendunaren mende egongo dira erabat, enpresaburu izateari datxekiozan eskubideak eukiko dauzalako berak, eta laneko legerian indarrean dagozan xedapen danak bete beharko dauz, baita laneko arriskuen prebentzinoko legeria be, kasu honetako beharginei jagokena, hain zuzen be.

4.4 Administrazioak edonoz eskatu ahal izango deitsoz kontratisteari teknikarietako bakotxagaz adostu dauzan kontratu agiriak erakusteko, horreen teknikarien nazinotasuna dana dalakoa dala.

4.5 Egiten diran beharrak, fase guztietan, administrazioaren jaubetzakoak izango dira. Halanda ze, administrazioak, edozein momentutan eskatu ahal izango dau egindako ikerketearen edo zerbitzuaren parte bat entregetako, behin betiko programea egiteagaz bateragarria bada eta beharren garapen zuzenari eragiten ez badeutse betibe.

4.6 Kontratistek ezin izango dau berarentzat erabili ez beste inori emon kontratautako lanetako daturik, ezta lanon edukia, osoa zein parte bat, argitaratu be administrazioaren idatzizko baimenik ez badauka. Kontratistea izango da, kasu guztietan, obligazio hori ez betetearen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea.

4.7 Kontratistek derrigor emon behar deitsoz administrazioari ikerketea edo zerbitzua egiterakoan erabili dauzan datu, kalkulu, prozesu eta prozedura danak.



4.8 Kontratista izango da egin dauzan beharren eta emon dauzan prestazinoen eta zerbitzuen kalidade teknikoaren erantzulea, baita kontratua gauzatzeko ez egiteakaitik, akatsakaitik, metodo ezegokiakaitik edo okerreko ondorioak atarateagaitik administrazioari edo beste batzuei eragingako ondorioen erantzulea be.

4.9 Kontratistek aparteko kostu barik emon beharko deutsoz administrazioari azkenengo horrek kontratuaren xedea behar dan moduan bete daiten beharrezkotzat jotzen dauzan zerbitzu profesional guztiak, hala nola, azalpenak emoteko nahiz jendaurreko informazioa emoteko batzarretara joatea.

## **5. ESLEIPENDUNAK EMON BEHARREKO ZERBITZUAK**

5.1 Aseguru bitartekariak benetako informazioa eta informazio nahikoa emon behar dau aseguru polizen promozinarako, eskaintzarako eta harpidetzarako, eta beraren ustez harpidetu behar diran kontratuaren baldintzen ganeko informazioa emon behar dau, baita une bakoetako beharrezko ondoren egokitzen diran estaldurei buruzko aholkularitza eskaini be. Era berean, polizak erabat eragingarriak izan daitezak baldintzak egon daitezala bermatu behar dau.

5.2 Parte hartu dauen aseguru kontratuaren indarraldian polizetako edozein klausulari buruzko informazioa emon beharko dau halan eskatzen jakonean, eta, ezbeharra jazo ezker, laguntzea, aholkularitza eta jarraipena eskaini beharko dauz derrigor, harik eta ezbeharra konpondu arte.

5.3 Urteko txosten tekniko egingo dau. Bertan hurrengo urtean aseguru beharreko arriskuen inguruko ebaluazioa be sartu beharko dau.

5.4 Bitartekariak, 1. baldintzan berariaz zehazten ez diran aseguru polizak kontratatuko deialdien kasuetarako, jagokon lehiaketarako oinarritzat erabiliko diran baldintza teknikoan agiria egin beharko dau, eta aseguru konpainietatik jasoriko eskaintzen barri emon beharko dau ostean.

5.5 Bermeoko Udalak kontratatuko aseguru polizen ezbehar-kopuruaren zerrenda zehatz eta estadistiko egin beharko dau bitartekariak, modu informatizatuan egin be. Hori dala-eta, txosten bat egin beharko dau hiru hilero, poliza bakoetako ezbeharrez zehaztuta eta horreetako bakoetaren egoerearen ganeko barri emonda.

5.6 Esleipendunak, zerbitzuaren xedea ondo garatu eta bete daiten, bere arlo profesionaleko beharrezko zerbitzu guztiak emongo deutsoz Bermeoko Udalari, hala nola, laneko azalpen batzarretara joatea, aseguruaren alorrari buruzko informazioa emotea, prestakuntza saioak, etab.

5.7 Beraren bitartekaritzaren bidez formalizaturako aseguru pribatuen kontratuei jagokezan kudeaketa eta eratorpen guztiak artatzeko obligazioa eukiko dau esleipendunak, aitatutako horreek kudeaketaak sortzen diren datan sortzen dirala.

5.8 Kontratatuko aseguru polizan egon daitezak frankiziak kontuan hartuta, kontratu honen esleipendunak laguntzea eta aholkularitza emongo dauz, eta Udalaren erantzukizuna norainokoa dan jakiteko beraren eritxia emongo dau.



5.9 Esleipendunak kontuan euki behar dau erantzukizun zibileko polizeak estaltzen dauzan ezbeharren tramitazioa, ebazpenerako tramiteei eta epeei jagokenez, administrazio prozedurearen mende dagoala.

## 6. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

6.1 Kontratua urte birako izango da 2010eko urtarrilaren 1ean hasita, eta beste urte birako luzatu ahal izango da 3 hilebeteko aurretiaz kontratatzaileen berariazko ukorik ez badago.

6.2. Aseguru-etxeek hiru hilebeteko aurretiaz kontratua deuseztatu badabe eta tasak eta baldintzak aldatuta luzatu gura badabe, idatziz bialdu beharko dabez horreek aldaketak, deuseztapenaren jakinarazpena egin eta hurrengo 10 egunen barruan.

Zerbitzuak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko deutse, nahiz eta Udalak aurretik ez ohartarazi

6.3 Aurreko 6.1 atalean adierazotako kontratu hasieraren kalte barik, gaur egun dagoan kontratuko banakako polizen amaiera egunak kontutan izan beharko dira kontratu honetako polizen hasiera eguna finkatzeko, horretarako honako informazioa emoten da:

<b>Indarreko aseguruak</b>	<b>Amaiera data</b>
Erantzukizun zibileko aseguria	2009-12-31
Kalte materialen aseguria	2009-12-31
Ibilgailuen aseguria	2009-12-31
Defentsa juridikoko aseguria	2009-12-31
Korporazinoko kideen bizitza aseguria	2009-12-31
Kirol Patronatoko beharginen bizitza aseguria	2009-12-31
Udaleko beharginen bizitza aseguria	2009-12-31
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria	2009-12-31
Jorge Itsasontzia	2010-08-03
Aita Guria itsasontzia	2010-05-20
Ortube itsasontzia	2010-07-21

6. 4 Bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzu kontratuaren iraupenagaz bat etor daitezkan zerbitzuaren esleipendunaren bidez kontratatutako aseguru poliza barrien iraupena, 2010. urteko polizen mugaeguna 2010eko abenduaren 31ko 24:00etan izango da. Horrela, itsasontzien 2010eko prima esleipendunak eskainitako urteko prima laindua izango da.

## 7. KONTRATUAREN PREZIOA



7.1- Kontratuaren aurrekontuan ez da artekariaren kosturik sartzen, izan be, aseguru pribatuaren kontratuaren esleipeneko zenbatekoari jagokonez, kontratu honek ez deitso Udalar aparteko gasturik eragingo, esleipeneko zenbatekoan sartuta dagoalako artekariak hartu beharreko portzentajea.

7.2- 2010. urteko aurrekontuan Udalak aurrekontuko honeek kredituak esleitzeko konpromisoa hartuko dau:

Erantzukizun zibileko aseguria	63.800,00
Kalte materialen aseguria	37.500,00
Ibilgailuen aseguria	33.800,00
Defentsa juridikoko aseguria	1.400,00
Korporazinoko kideen bizitza aseguria	3.680,00
Kirol Patronatoko beharginen bizitza aseguria	2.300,00
Udaleko beharginen bizitza aseguria	39.000,00
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria	1.470,00
Itsasontzien aseguria	46.270,00

## 8. FINANTZIAZINOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura. Bestalde, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan, behar beste kreditu jarriko dau jagokon organoak.

## 9. NOLA ORDAINDU

Ordainketa, esleipendunak aurkezten dauzan faktura Udalak onartu ondoren, aurkezten dan egunetik 60 egunera egingo da.

## 10. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Hurrengo aldietako primak kalkuletako hauxe baino ez da kontuan hartuko:

- Kontratuaren luzapena egin ezker, prezioak berraztertu ahal izango dira KPI-ren arabera, beti be, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 78 – 82. artikulua xedatutakoa kontutan izanda eta espresuki 78.3 artikuluan adierazotako mugagaz, hau da, gehienez KPIren %85 aplikatu ahal izango da.

- Zergetan egon daitezkezan aldaketak, aseguru polizetan eragina euki daikien tributua

## 11. BERMEAK

Behin-behineko bermea: lizitazio prezioaren %2a izango da. Berme hori kontratuaren behin-betiko esleipena egin ondoren ofizioz itzuliko zaie lizitatzailerei.



Behin-betiko bermea: Esleipendunari behin-behineko esleipena jakinarazten zaionetik 15 eguneko epean, esleipendunak behin betiko bermea sartu beharko du Udaleko Diruzaintzan, hau da, esleipen prezioaren %5a.

Kontratuaren epea amaitzen denean, berme hori esleipendunari itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

## **12. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dagozan baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik eginez gero. Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolarenpean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

## **13. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK**

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Lanak egiten jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

## **14. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.**

Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

## **15. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 284. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.



## **16. ZERBITZU HARTZEA ETA BERME EPEA**

Kontratuaren xedea dela eta, ez da zerbitzu hartzerik ez berme eperik aurreikusten.

## **17. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

### **A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA**

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko (196. Artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

### **B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA**

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aipatzen diren zigorrak ezartzea (196.7. Artikulua).

## **18. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK**

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 206 eta 284. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

## **19. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK**

Administrazioari dagokio: a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### **20. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 141 eta 134. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.



Esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat, lizitatzailerak baktxaren aseguru proposamen danentzako batuketa eginda:

a) Gehiengo legez jarritako gastu zenbatekoa berantz hobatzea edo merkeena izatea, gehiengo 45 puntu.

Zeren aseguru	Primak/gastua
Erantzukizun zibileko aseguru	gehiengo gastua: 63.800,00 €
Kalte materialen aseguru	gehiengo gastua: 37.500,00 €
Ibilgailuen aseguru	Ibilgailu baktzarentzako prima
Defentsa juridikoko aseguru	gehiengo gastua: 1.400,00 €
Korporazinoko kideen bizi-tza aseguru	adin edo bestelako araberako primak
Kirol Patronatoko beharginen bizi-tza aseguru	adin edo bestelako araberako primak
Udaleko beharginen bizi-tza aseguru	adin edo bestelako araberako primak
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru	personako prima
Jorge Itsasontzia	gehiengo gastua: 2.700,00 €
Aita Guria itsasontzia	gehiengo gastua: 38.160,00 €
Ortubere itsasontzia	gehiengo gastua: 5.410,00 €

Formulea:

X = aurkeztutako prima txikiaren zenbatekoa; P =45; Y = aurkeztutako beste primetako baktxaren zenbatekoa; Proposamen baktxaren puntuazioa =  $P(X / Y)$

b) Frankiziaz, gehiengo 20 puntu

Proposameneko frankizien zenbatekoa beharantz hobetzea kontuan hartuko da

Zeren aseguru	Frankizia
Erantzukizun zibileko aseguru	gehiengo: 1.500 €
Kalte materialen aseguru	gehiengo: 300 €
Ibilgailuen aseguru	Frankiziaz ez
Defentsa juridikoko aseguru	Frankiziaz ez
Korporazinoko kideen bizi-tza aseguru	Frankiziaz ez
Kirol Patronatoko beharginen bizi-tza aseguru	Frankiziaz ez
Udaleko beharginen bizi-tza aseguru	Frankiziaz ez
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru	Frankiziaz ez
Jorge Itsasontzia	gehiengo: 1.000 €
Aita Guria itsasontzia	gehiengo: 3.000 €
Ortubere itsasontzia	gehiengo: 1.000 €

Formulea:





X = aurkeztutako frankiziarik txikienaren zenbatekoa; P = 20 ; Y = aurkeztutako beste frankizia bakoxtaren zenbatekoa; Proposamen bakoxtaren puntuazinoa =  $P(X / Y)$

c) Etekinetan partizipazioa edo prima hobaria: gehiengo 15 puntu. Bizitza polizetan, eskaintako kopuruaren ganera, banakako polizan ala guztiak bateratuta aplikatuko dan kontutan eukiko da.

Zeren aseguru	Etekin
Erantzukizun zibileko aseguru	X
Kalte materialen aseguru	X
Ibilgailuen aseguru	ezbehar ezean prima hobaria
Defentsa juridikoko aseguru	X
Korporazinoko kideen bizitza aseguru	Etekinetan % partizipazioa
Kirol Patronatoko beharginen bizitza aseguru	Etekinetan % partizipazioa
Udaleko beharginen bizitza aseguru	Etekinetan % partizipazioa
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru	X
Jorge Itsasontzia	X
Aita Guria itsasontzia	X
Ortube itsasontzia	X

Formulea:

X = % partizipazio edo hobari kopuru handiena; P = 15; Y = besteetako bakoxtaren kopuru; Proposamen bakoxtaren puntuazinoa:  $P(Y / X)$

d) Plegu teknikoetan zehaztutako aseguru bermeak geitzea edo hobatzea, gehiengo 20 puntu.

Formulea:

X = gehitutako edo hobatutako berme kopuru handiena; P = 20; Y = besteetako bakoxtaren kopuru; Proposamen bakoxtaren puntuazinoa:  $P(Y / X)$

Kontratu honen esleipenerako, eta 30/2007 Legearen seigarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da, minusbaliadun langileen kopuru %2a baino gitxiagokoa EZ diran plantiladun litzitatzailen alde, horrela frogatzen dabenean gaitastun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, honeek aurkezten dabenean proposamenak, eskaintza hoberenaren terminoak bardintzen badabenez, esleipenaren oinarri diran irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz

## 21. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen teknikoa



eta ekonomikoa frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak **22.** baldintzan ezarritakoak izango dira. Bestek beste, kualifikazinoa eta esperientzia, proposatutako bitartekoak eta memoria teknikoa erakutsi beharko dauz.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jardura nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

## **22. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Kontratazio honen baldintza plegu tekniko-administratiboak, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu eta proposamenak aurkeztu ahal izango dira:

LEKUA: [BERH@Z](mailto:BERH@Z) BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO

ORDUAK: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenatan eta eguenatan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. \*Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 15 eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. (15 egun gutxienez – 143.2 Art).

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dana dala, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zala egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bildatzen duan epean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko deitso kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaltzen badau, balioazkoa izan daiten, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko dau.

Lehiatzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "ASEGURU PRIBATUEN KONTRATUAK KUDEATZEKO BITARTEKARITZA ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN LEHIAKETA IREKI BIDEZ PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA."



Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

“**A**” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: **“KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”**. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalardea.

Lehiatzailea persona juridikoa izanez gero:

- Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
  - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
  - Arduradunaren NAN.
- c) Kontratatzeke debekurik ez duela aitortzea (II Eranskina).
- d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VI. Eranskina).
- g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (V. Eranskina).
- h) Eskatzen bada, indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria.
- i) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.

**\*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroan izena eman badago, aipatutako dokumentazioaren ordez hau aurkeztu beharko da:**

- **Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.**
- **Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortpena (IV. Eranskina).**



**Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, behin-betiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.**

g) Enpresa lehiatzaileek zerrendatzen dan dokumentazinoa aurkeztu beharko dabe, baita euren eskaintzearen kaudimen tekniko oinarritzeko balioko dabela uste daberen datuak, informazinoa edo dokumentuak be:

#### *I. KUALIFIKAZINOA ETA ESPERIENTZIA*

1. Egoitza soziala eta Euskal Herriko ordezkariak
2. Lehiatzaileak azken hiru urteotan euki dauen aseguru-zorroa, eskaintzen diran sortakaz parekatu daitezkezan aseguru-arloka banakatuta.
3. Enpresako behargin tekniko espezializatuen curriculum, lanbide-kategoria, titulazinoa akademikoa adierazota eta enpleguan izandako egonkortasuna zehaztuta.

#### *II. PROPOSATUTAKO BITARTEKOAK*

Atal honetan lehiatzaileak txosten bat aurkeztu beharko dau eta, bertan, kontratua beteteko Udalaren esku itxiko dauzan bitarteko materialak eta giza materialak jasoko dauz. Era berean, kontratu hau beteteko izentauriko beharginek izango daberen funtzinoa eta dedikazinoa maile be azaldu beharko dira bertan.

#### *III. MEMORIA TEKNIKOA*

Kontratistek erabiliko dauen metodologia azaltzeko txosten tekniko aurkeztu beharko da. Txosten horretan zerbitzurako izentauriko beharginek eukiko daberen disponibilitadea, erantzuteko gehieneko epeak, ezbeharren tramitaziorako prozedurak eta zerbitzuaren kalidadea bermatzeko lehiatzaileak beharrezkotzat jotzen dauzan bestelako kontu danak azaldu beharko dira.

**“B”** kartazalaren azpтитulua hau izango da: **“PRIMA-PROPOSAMENA”**. Hona hemen **“B”** kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) **Proposamen bakarra**, 1go. baldintzan zehaztutako aseguru xede guztien prima garbiak adierazota eta eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, I. **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita. Baita, erantsita be, operazinoa zergapetu daikien zergak, gastuak, tasak edo arbitrajeak zein polizaren azken prezioan eragin daiken beste edozein gastu.

b) Dokumentazio Teknikoa: Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dossier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.



c) Hala aurreikusten bada, B gutun-azal honetan proposamen ekonomikoaren ereduaren Eranskinak sartuko dira.

d) Ez dira onartuko proposamen hauek:

- Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
- Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
- Pleguaren I. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
- Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.

e) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.

f) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorrek izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

**“C”** kartazalaren azpтитulua hau izango da **“Proposatutako aseguru-kontratuen ezaugarriak”**

Kartazal honetan lehiatzaileak eskaintzen dauzan Aseguru Pribatuen Kontratu-tako ezaugarrien deskripzioa sartu behar da, eta gitxienez hauxe adierazo beharko da:

- Arriskuari aurre egiten deitson konpainia edo konpainiak.
- Aseguru-kontratuaren zenbatekoa.
- Arriskuen baldintza orokorren ale bat
- Eskaintako frankiziak, etekinetako %/hobariak, eta berme gehiketak eta edo hobakuntzak.

VIII. Eranskinean zehaztuta dagozanak eranskin horretan aurkeztuko dira.



Udalak bertan behera itxi daike esleitutako bitartekariagaz egin beharreko Aseguru Privatuen Bitartekotzarako Kontratua, baldin eta esleipendunak eskainitako aseguru-kontratuen eskaintzak ez badira eskainitako baldintzetan formalizatzen aseguru-etxeakaz.

### **23. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (144.1. Art), Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A"kartazala) sailkatuko dau, eta, dokumentazio horretan akats materialak somatuz gero, hiru laneguneko epea emango deutso lehiatzaileari akatsa zuzen daian.

Aurkeztutako eskaintzak ("B"kartazala) jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean, eta, "A" kartazalean egon ahal izan diran akatsak zuzendu eta gero. Telefonoz edo faxez emongo jake aurretiaz horren barri lehiatzaileei.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasako deutso esleipen proposamena.

### **24. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Behin-behineko esleipena gehienez bi hilabeteko epean (145.artikuluak xedatutako epeetan) egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. Behin-behineko erabakia lizitatzaleei jakinaraziko zaie. Horrez gain, web orrialdean edo BAOn publikatuko da.

Behin-behineko esleipenaren erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epean, behin-behineko esleipenerako proposatuta dagoen lehiatzaileak honako hauek egin beharko ditu:

- a) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- b) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- c) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Kontratua 10 egun balioduneko epean formalizatuko da, behin-betiko esleipena jakinarazten den eguneko biharamunetik zenbatzen hasita

Aurreko epea igarota, behin-betiko esleipena egingo da, hori web orrialdean publikatuko delarik. Kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, behin-betiko esleipena BAOn ere publikatu beharko litzateke.

.Kontratuaren behin betiko esleipena behin-behineko esleipendunari egitea ez denean bidezkoa, ez dituelako horretarako beharrezko baldintzak betetzen, beste lehiaketa bat egin aurretik, administrazioak, behin-behineko beste



esleipen bat egin ahal izango du hurrengo lehiatzailearen edo lehiatzaileen alde, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, betiere hori posible bada eta esleipendun berriak adostasuna agertu badu. Kasu horretan, esleipendun horri hamar laneguneko epea emango zaio aurreko ataleko bigarren paragrafoan adierazitakoa bete dezan.

Prozedura hori erabili ahal izango da erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuen kasuan ere, hasitako kontratu bat betetzen jarraitzea bada kontua eta kontratu hori ebazitzat adierazia izan bada.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

## **25. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA**

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiak bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala

## **III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

### **26. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua pribatu-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri



Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

## **27. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA**

30/2007 Legearen 37. artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak, harmonizatutako erregulazioaren mende dauden kontratuen esleipen prozeduretan hartzeko, subentzionatutako kontratuak, II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 206.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, artikuluko honetan arautzen den kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira. 97. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira behin-behineko esleipen akordioak, lehiaketa arautzen duten baldintza agiriak eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituztenak, eta aurreko prozeduran hartutako tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientearen egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango diete interesdunek, zuzen dezaten, eta behin-behineko esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsua beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsuaren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek eta, edozein kasutan, lehiatzaileek.

Autonomia erkidego bakoitzeko arauak ezartzen dutenaren kalterik gabe (eta edozein kasutan, administrazio bidea agortzen duten erabakiak emango dituen organo batekin izan beharko du eskumen hori), errekurtsu berezia ebazteko eskumendunak izango dira: kontratazio organoa administrazio publiko baten kontratuak badira, edo erakunde kontratatzailea atxikita dagoen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko burua edo haren zaintza daukana, horrek ez badauka administrazio publiko izateko. Azkeneko kasu horretan, erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta dagoenean, kontrol edo partaidetza nagusia daukanari dagokion organoa izango da eskumenduna.

Kontratu subentzionatuei dagokienez, eskumena izango du subentzioa eman duen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko titularrak, edo subentzioa eman duen





erakundea atxikita dagoenekoak, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Sektore publikoko subjektu desberdinetako subentzioak dauden kasuetan, zenbateko handieneko subentzioa kontuan hartuta zehaztuko da eskumena eta, zenbateko berdinetan, lehenengo eman dena kontuan hartuta.

Kontrako berariazko zehaztapenetan izan ezik, kontratazio arloko errekurtsio berezia ebazteko eskumena kontratatze eskumenarekin batera eman dela ulertuko da. Hala ere, kalteen ondoriozko kalte-ordainak ezartzeko ahalmena ezin izango da eskuordetu, eta horren gainean, edozein kasutan, organo eskuordetzaileak ebatzi beharko du. Eragin horietarako, kalte-ordain bat onartzea bidezkoztat joz gero, espedientea organo eskuordetzaileari igorriko zaio, eta hark, aurretiaz eta berariaz eskumenak bereganatu beharrik gabe, dagokion errekurtsioaren gainean ebatziko du.

Kontratazio arloan errekurtsio berezia ezartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, aurkaratutako ekintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta. Errekurritutako ekintza kontratuaren behin-behineko esleipena bada, epea zenbatuko da ekintza hori egunkari ofizial baten edo kontratazio organoaren kontratatzailearen eskakizunetan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, 135.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Errekurtsio idazkia kontratazio organoaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo errekurtsioaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Kontratuaren esleipen prozedura 96. artikuluan aurreikusitako premiazko bidetik tramitatzen bada, errekurtsioa aurkezteko epea zazpi lanegunekoa izango da, eta akatsak konpontzeko bi lanegunekoa.

Errekurritutako ekintza behin-behineko esleipena bada, kontratazio espedientearen tramitazioa bertan behera geratuko da errekurtsioa berariaz ebazten den arte, eta, beraz, ezin izango da behin betiko esleipenik egin ez kontratua egin. Hala ere, errekurtsioa enpresaburu batzuek, kopuru mugarik gabe, parte har dezaketean esparru akordio baten behin-behineko esleipen ekintza baten kontra ezarri bada, ebazpena emateko eskumena daukan organoak bertan behera geratzea altxatu ahal izango du errekurtsioa aurkeztu denetik bost lanegun igaro eta gero.

Errekurtsio bat aurkezten bada, horren berri emango zaie gainerako interesdunei, eta bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsioen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsioaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die. Edozein kasutan, errekurtsioa jarri zenetik hogeit hamar lanegun igaro badira eta ez bada ebazpenaren berri eman, interesdunak ez onartuzat jo ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko eraginetarako, berariazko ebazpena



emateko betebeharraren kalterik gabe eta, hala badagokio, berariazko ebazpena ematen den bitartean, 7. atalean ezarritako bertan behera geratzea altxatu gabe.

Errekurtsoaren ebazpenak errekurtsoa edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartuzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean edo prozedurako arau-haustearen ondorioz kalteak jaso dituzten pertsonen kalte-ordaina ematearen gainean ere.

Errekurtsoaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 135.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

## **28. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik sortzen diren auziak, prestaketa eta esleipenari dagokienez, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Ondorioei, betetzeari eta amaierari dagokienez, aldiz, Jurisdikzio zibila izango da kontratuaren alderdien artean sortutako eztabaidak erabakitzeko eskumenak edukiko dituenak.

Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Bermeon, 2009ko abuztuaren 4an.



**I. ERANSKINA**  
**Proposamen ekonomikoaren eredia**

..... Jaun/Andreak, .....  
Helbidearekin eta ..... zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo  
..... Helbidea eta ..... IFZ daukan  
..... izeneko enpresaren ordez,

**AITORTZEN DUT:**

- I.- ..... xedea daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.  
II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.  
III.- Ordezkatzen dudana enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.  
IV.- **Hitz emoten dot kontratua honegaz batera doazen prima garbietan esleipendunari jagokozan zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere, sartuta dagozala.**

Eta beste alde batetik, polizen azken prezioan eragina daukien zerga eta portzentaiak honako honeek dirala:

Zeren aseguruia	Eskaintak o prima garbia	Zerga	Zergaren % edo zenbatekoa
Erantzukizun zibileko aseguruia			
Kalte materialen aseguruia			
Ibilgailuen aseguruia			
Defentsa juridikoko aseguruia			
Korporazinoko kideen bizitza aseguruia			
Kirol Patronatoko beharginen bizitza aseguruia			
Udaleko beharginen bizitza aseguruia			
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguruia			
Jorge Itsasontzia			
Aita Guria itsasontzia			
Ortube itsasontzia			

Bermeon, 2009ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



**II ERANSKINA  
Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin, .....  
helbidea eta .....IFZ daukan .....izeneko enpresaren  
ordez,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU**

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluak ezartzen  
dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2009ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



**III ERANSKINA**  
**Lizitazaileek betetzeko inprimakia**

**ENPRESAREN DATUAK**

**1. Enpresa indibiduala**

Izena:  
NAN:  
Helbidea:  
Fax:  
Tfnoa:  
PK:  
Erregistratutako merkataritza- izena:  
.....ko Merkataritza Erregistroan .....  
datan inskribatuta.

**2. Gizarte-enpresa:**

Izena:  
IFZ:  
Eratze-data:  
.....ko Merkataritza Erregistroan .....  
datan inskribatuta.  
Helbidea:  
Fax:  
Tfnoa:  
Ondorengo giza-eskriturak:

<b>IZENA</b>	<b>DATA</b>
1. Aldatzea	...../...../.....
2. Handitzea	...../...../.....
3. Beste batzuk	...../...../.....

**3. Ahalduna:**

Izena:  
Ahalordetze-eskritura :  
- Data :  
  
- .....ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

Bermeon, 2009ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



#### **IV ERANSKINA**

### **Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko  
NANarekin , ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
..... izeneko enpresaren ordezt,

#### **KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU**

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluari dagozkionak.

Sinatuta:  
NAN:



**V ERANSKINA  
KAUDIMEN EKONOMIKOA**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko  
NANarekin , ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordeiz, ..... xede daukan  
kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

**ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:**  
Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

**2006. Urtea**

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

**2007. Urtea**

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

**2008. Urtea**

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2009ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



**VI ERANSKINA  
KAUDIMEN TEKNIKOA**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko  
NANarekin , ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordezt, .....  
xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

**ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:**

1. Azken hiru urtetan empresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:
  - 2006. urtea
  - 2007. urtea
  - 2008. urtea
2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:
3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:
4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoa frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2009ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:





**VII. ERANSKINA:  
MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA.**

.....J<sup>a</sup>/A<sup>a</sup>.....NAN zenbakiduna,  
.....zenbakiduneko IFK daukan .....enpresaren ordeaz eta izenean,

**Erantzunkizunpean, Adierazten dau:**

1.- Agiri honek aurkezteko dataz, goian aipatutako enpresak ondorengo langile kopuru eta motak daukazala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....

- Enpresaren plantilakoak diranak eta besteren kontura lan egiten daberen lagileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira: .....

- Enpresaren plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen daberen portzentaia, autonomoak edota bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira: .....

Aitorpen hau kreditatzeko asmoagaz, administrazio honek Enpresa lizitatuak eskatzen deusozan agiri guztiak entregatzeko konpromezua hartzen dau.

Bermeon, 200...ko .....aren .....an.

Sinatuta:

NAN:



**VIII. ERANSKINA:  
Proposatutako aseguru-kontratuen ezaugarriak**

..... Jaun/Andreak, .....  
Helbidearekin eta ..... zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo  
..... Helbidea eta ..... IFZ daukan  
..... izeneko enpresaren ordez,

**AITORTZEN DUT:**

Esleipen irizpideetako b) eta c) ataletarako honako eskaintza egiten dodala:

Zeren aseguruia	frankizia	Etekinia
Erantzukizun zibileko aseguruia	?	X
Kalte materialen aseguruia	?	X
Ibilgailuen aseguruia	frankiziarik ez	ezbehar ezean prima hoberia
Defentsa juridikoko aseguruia	frankiziarik ez	X
Korporazinoko kideen bizi-za aseguruia	frankiziarik ez	Etekinetan % partizipazioa
Kirol Patronatoko beharginen bizi-za aseguruia	frankiziarik ez	Etekinetan % partizipazioa
Udaleko beharginen bizi-za aseguruia	frankiziarik ez	Etekinetan % partizipazioa
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguruia	frankiziarik ez	X
Jorge Itsasontzia	?	X
Aita Guria itsasontzia	?	X
Ortube itsasontzia	?	X

Etekinetan partizipazioa:

Poliza bakotxarentzat

Batera, hiru polizentzat

Bermeon, 200...ko .....aren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

